

*Donostiako Udalean eta
Udalerrian euskararen
erabilpena normalizatzeko
Araua*

Sarrera

Euskara giza eta kultur aberastasuna da, denok zaintzen eta berreskuratzen saiatu behar duguna.

Hizkuntzak gizartearen onarpena eta gizabanakoen atxikimendua behar ditu, guztion artean lortu behar ditugun gizartearen kohesio eta integrazioa heltzeko.

Helburu honekin, Donostiako Udalak Arau hauek onartu ditu, gure hirian euskararen erabilpena normalizatzeko.

Eskerrik asko zu ere erantzunkide izateagatik.

Adeitasunez.

GURUTZ LARRAÑAGA
Euskara Patronatuaren Lehendakaria

DONOSTIAKO UDALEAN ETA UDALERRIAN EUSKARAREN ERABILPENA NORMALIZATZEKO ARAUAK

Indarreango legeriak Euskal Komunitate Autonomoaren esku jartzen du euskararen erabilpena garatzeko eta normalizatzeko neurriak erabakitzea, hizkuntz horren bi alderdi hauek kontutan hartuz, alegia, Euskal Herriaren Kultur Ondarearen oinarritzko osagarri izatea, eta beste aldetik, gaztelaniarekin batera, erabilpen ofizialeko hizkuntz Komunitate Autonomoaren lurraldean.

Euskararen Erabilpenaren Normalkuntzarako Oinarritzko Legeak, 10/1982, abenduaren 24koak, hainbat betekizun ezarri zizkien Euskadiko Administrazio Publikoei, hiritarren hizkuntz eskubideak aitortzearen ondoriozkoak direnak. Ondoren, 250/86, azaroaren 25eko Dekretuak betekizun haiek garatzen zehazten ditu, Euskadiko Komunitate Autonomoko Administrazio Publikoetako euskararen erabilpena eta normalizazioa arautuz, eta lanpostuen hizkuntz perfilaren figura sortuz.

Euskal Funtzio Publikoaren Legeak, 6/89, uztailaren 6koak, hizkuntz normalizazioari ekiten dio, hizkuntz perfila oinarritzat hartuz, zeina Funtzio Publikoan eta

karrera administratiboan sartzeko prozedurekin zuzenki lotua baitago, eta lanpostuen zerrendan, beharrezkotasun-datarekin batera, sartu behar baita beti, halabeharrez.

Aipaturako lege-xedapen horiek garatzera dator 224/89, urriaren 17ko Dekretua, zeinak hizkuntz normalizazioko prozesuei ekiten baitie, erabateko errespetua agertuz Administrazio Publikoen autonomi printzipioari, izan ere, administrazio horiei baitagokie aurreikusitako xedeak iristeko behar diren neurriak hartzea, eta lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntz perfila esleitzeko akordioa onestea.

Aipaturiko lege-xedapen horietan oin hartuz, arauteria honek oinarriak ezartzen ditu, euskararen erabilpenaren normalizazioari buruzko udal ekintza arautzeko, hala administrazioaren barne-erabilerari eta herritarrekiko harremanei dagokienez, nola udalerriaren gizarte bizitzan ere.

Lehen Kapitulu

Xedapen Orokorrak

1. artikulua

Hizkuntza ofiziala

Euskara. Euskal Herriaren berezko hizkuntza dena, Donostiako Udaleko Erakunde Autonomoetako eta udalerriko hizkuntza ofiziala da. gaztelania bezala.

2. artikulua

Aplikazio-esparrua

Aplikazio orokorra izan dezaten eman diren eta indarrean dauden lege nahiz arauen era Arauteria honetako xedapenen arabera erabiliko dute euskara Donostiako Udalak eta bere Erakunde Autonomoek, nahiz bere barne funtzionamenduan nahiz herritarrekiko hala organismo eta erakunde guztiekiko harremanetan, azken helburua euskararen erabileraren normalizazioa delarik.

3. artikulua

Lehentasunezko tratamendua gaztelaniarekiko berdintasun erreala lortzeko

Euskara era gaztelania ofizialak badira ere, hainbat eta hainbat urtetan euskarak jasan duen zokoratze prozesuaren ondorioz, benetako berdintasunetik urrun daude. Hortaz, eta bi hizkuntza ofizialen benetako berdintasuna lortzeko xedez, lehentasunezko tratamendu berezitua emango dio Donostiako Udalak euskarari.

4. artikulua

Herritarren hizkuntz eskubideak

Euskal Herriko hiritar guztiek dute bi hizkuntza ofizialak ezagutu ez ezik erabiltzeko eskubidea, nola hitzez hala idatziz. Ondorioz, Donostiako Udalak, indarreango legeriak oro har onartutakoen ildotik honako hizkuntz eskubideak aitortzen dizkie espresuki hiritarrei.

- a) Udalarekin eta bere menpeko Organismo ororekin ahozko eta/edo idatzizko harremana euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.
- b) Udalak antolatu edo/eta gestionaturiko ikasketak oro bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.
- c) Udalaren argitalpenak eta Udalak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan jakitera ematen dituen berri eta xedapenak oro euskaraz zein gaztelaniaz hartzeko eskubidea.
- d) Udaleko edozein bileratan euskaraz zein gaztelaniaz jarduteko eskubidea.

Bigarren Kapitulua

Euskararen erabilera Udalaren barne funtzionamenduan.

5. artikulua

Udalarekiko harremanak euskara hutsez ziurtatzea

Hiritarrek Udalarekin beraiek aukeratutako hizkuntza ofizialean jardun dezaketenez, Udalarekin harremana euskara hutsean eduki nahi izan dezaten hiritarren aukera bermatzeko neurri egokiak hartuko ditu Udalak; horietan lehena, aukera hori egin dezan hiritar multzoa identifikatzea izango delarik. Udalarekiko harremanean euskara hutsean zuzenduko zaie Donostiako Udala.

6. artikulua

Laneko hizkuntza

4. eta 5. artikuluetan aitortutako eskubideak benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen beharrezko diren neurriak hartuko ditu Udalak. Hortaz, hiritarren zerbitzurako hizkuntza ez ezik laneko hizkuntza ere izango da euskara Donostiako Udalean, Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

7. artikulua

Enpleguak euskalduntzea

Aurreko Artikuluetan jasotakoa betetzeko xedez, udal enpleguak euskalduntzeko neurri egokiak hartuko ditu Donostiako Udalak, euskararen erabilera eta normalizazioari eta Euskal Komunitate Autonomoko Administrazio Publikoetako hizkuntz plangintzari dagozkien 250/86 eta 224/89 Dekretuetan aurreikusitakoa betetzeko egiten den egitarauaren arabera.

8. artikulua

Harreman elebidunak ziurtatzea

Donostiako Udalak, Euskal Komunitate Autonomoko Administrazio Publikoetako Euskararen erabilera eta normalizazioari buruzko 250/1986 Dekretuaren 13. artikuluan eta 12. artikuluan 4. atalean xedatutakoaren arabera, bere buruari ezartzen dio aipaturiko 12. artikuluan aipatzen diren 5 xedeetatik laugarrena betetzea; horretarako, Gizarte-izaerako eta izaera Orokorreko Zerbitzu eta Unitateak gaituko ditu erabat bi hizkuntzetan funtziona dezaten, udal zerbitzu guztietan hiritarrari harreman elebidunak ziurtatzeaz gain.

9. artikulua

Langileen euskalduntze plangintza

Aurreko artikuluan ezarritako xedea betetzearren, Udalak, urtero eta udal langileen ordezkarien lankidetzaz, langileriaren euskalduntze plana onartuko du.

10. artikulua

Lanpostuak betetzeko prozedurak

1.- Hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa duten lanpostuak.

1. Funtzionario izaera nahiz behin betirako izaera laborala duten Lanpostuak betetzeko prozeduretan, deia egiterakoan hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa dutenean, aipatu hizkuntza-eskakizuna lehiaketa edo lehiaketa-oposiziora pasatzeko onartua izateko baldintza bezala betetzea exijitu ahal izango da, deiaren oinarri-arauetan ezar dadinari jarraiki, edo funtzionario izatera iritsi aurretiko -edota, hala egokituko balitz, behin-betiko kontratua eskuratu aurretiko- gaitze-ikastaro eta praktika-aldi baten buruan.

Gaitze-ikastaroak eta praktika-aldiak bat eginda, nolanahi ere, ez dute 18 hilabetetatik gora iraungo.

2.- Hizkuntza eskakizuna gaitze-ikastaroen buruan egiaztatzea

2. Hizkuntza-eskakizuna gaitze-ikastaro eta praktika-aldi baten buruan egiaztatu behar den kasuetan, aurrez, hautatze frogen bidez. lanpostua betetzeko exijitutako hizkuntza-eskakizuna baino bi maila beheragokoa egiaztatu beharko da. Eskakizuna 1. edo 2.a denean, hautaketa-probetan euskara merezimendu bezala baloratuko da.

3.- Hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa ez duten lanpostuak

3. Deia egiterakoan hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa ez duten lanpostu haiek betetzeko prozeduretan, lanpostuaren izaera edota kontratazio denboraldia edozein izanik ere, euskara froga bat egingo da, zeinak, lanpostuaren hizkuntza-eskakizunaren arabera,

hautagaiek duten euskara ezagutza merezimendu bezala baloratuko duen.

Merezimendu-balioaren heinekoa, gainontzeko hautatze-prozeduran lor daitekeen gehieneko puntuazioaren arabera izango da, jarraian datorren taulan finkatzen denari jarraiki:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: % 5.
- 2. hizkuntza-eskakizuna: % 10.
- 3. hizkuntza-eskakizuna: % 15.
- 4. hizkuntza-eskakizuna: % 20.

4.- Barne sustapena

4. Aurreko xedapen guztiak aplikagarri izango dira titulazio nagusiagoko taldeetara iristeko barne-promozioko prozeduretan.

3.- Azterketen ardura

5 . Lanpostuak betetzeko prozedura guztietan, Udalak, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari eskatuko dio euskara azterketak prestatu, egin eta zuzen ditzan.

11. artikulua

Agiriak inskribatzea

Udaletxera sartzen diren edo bertatik ateratzen diren agiriak, idatzita dauden hizkuntzan edo hizkuntzetan inskribatuko dira Udal Erregistroan, 10/82 azaroaren 24ko Oinarri Legeko 7. artikuluan xedatutakoarekin bat.

12. artikulua

Agiriak inskribatzea

Udalaren bando, buletin, araudi, ordenantza eta ebazpenak oro bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira, Ordenantza hauetako 20 artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

13. artikulua

Euskarazko agirien balio ofiziala

Euskara ere, gaztelania bezala, hizkuntza ofiziala denez, euskaraz idatzitako erabaki, jakinerazpen, xedapen, ziurtagiri eta gainerako agiri guztiek balio ofiziala dute.

14. artikulua

Euskarak lehenetsuna

Indarrean dagoen araudiaren arabera mezua derrigor bi hizkuntza ofizialetan eman behar den kasuetan euskarazkoa lehenetsiko da.

15. artikulua

Aktak

Aktak Udaleko Batzorde Informatiboen, Gobernu Batzordearen eta Plenoaren eta Erakunde Autonomoen antzeko organoen bilkuretako akten testu orijinalak bileretan erabili den hizkuntza ofizialean idatziko dira.

16. artikulua

Euskara lan-hizkuntza

Udaleko organo guztiek dute -informatiboek nahiz exekutiboek- beren ohizko lan-hizkuntzat euskara aukeratzeko eskubidea. Erabaki hori hartzen duten organoen bilerak sistematikoki euskaraz egingo dira, eta euskaraz ez dakiten partaideentzat aldibereko itzulpen zerbitzua emango da. Era berean, organo horien aktak, gutunak, jakinarazpenak eta agiriak oro euskaraz idatziko dira. beharrezko den kasuetan gaztelerara itzultzearen kalterik gabe.

17. artikulua

Bilkuretako deialdiak

Udaleko organo informatiboen eta exekutiboen bilkuretako deialdi guztiak bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira, ohizko lan hizkuntzat euskara aukeratzen duten organoen bilera-deialdiak ezik, hauek euskara hutsean idatziko baitira, gaztelaniazko itzulpena eskatzen duten partaideei bakarrik igorriko zaielarik.

18. artikulua

Komunikabideekiko harremanak

Komunikabideetan argitaratzen diren iragarkiak bi hizkuntza ofizialetan emango dira ezagutzera, euskarazko mezua lehenetsiko delarik. Era berean, komunikabideetara bidaltzen diren ohar, abisu. eta informazioak ere euskaraz eta gaztelaniaz igorriko dira, eta informazio horien berri bi hizkuntzetan eman dezaten eskatuko zaie komunikabideei. Guzti hori, 20.5 artikuluan xedatuaren kalterik gabe.

19. artikulua

Inprimakiak eta zigiluak

Udalak eta bere menpeko organismoek erabiltzen dituzten inprimaki guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita inprimatuko dira, bi hizkuntza ofizialetariko bat edozeinetan betetzeko moduan.

Halaber, Udalaren eta bere menpeko organismoen zigilu guztiak, nahiz barne-funtzionamendukoak naiz proiektzio publikoa duten agirietan estanpatzekoak, bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira, 20. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

20. artikulua

Euskara bakarrik erabiliko den kasuak

Ondoren aipatzen diren kasuetan euskara bakarrik erabiliko da:

1 . Arau hauetako 5. artikuluan aipatu hiritarrei bidaltzen zaizkien gutun, agiri eta jakinarazpenetan. eta beraien eskariz irekitzen diren espedienteetan.

2. Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko legea, euskararen erabilera normalizatzeko, betetzea dagokien Administrazio Publikoei igortzen zaizkien idatzietan

3 . Euskara hizkuntza ofiziala duten Organismoei bidaltzen zaizkien idatzietan.

4. Errotulu, seinale eta antzekotan euskaraz eta gaztelaniaz oso antzeko grafia duten hitzak idazterakoan.

5. Mezua piktogramez baliatuz adierazi litekeenean.
6. Ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta destinatarien berezitasunek eskatzen dutenean.
7. Kale, plaza eta edozein leku publikoren izena, bai errotuluetan, baita izen horiek biltzen dituen kaletegi ofizialean ere, Arau hauetako 23 artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

Nolanahi ere, artikuluko honetako 1, 2, 3 eta 6. puntuetan aipatzen diren idatziak zinegotziren batek edota Alkate-Lehendakariak berak sinatu beharko balituzte, eta berauek hala eskatuko balute, gero euskara soilean igorriko den idatziaren gaztelaniazko itzulpena erantsiko litzaieke.

21. artikulua

Udal-Egoitzetako errotulazioa

Udaletxeko eta Udalaren menpeko organismoen egoitzetako errotulazioa bi hizkuntza ofizialetan egingo da. Ordenantza honetako 20. artikuluko 4. eta 5. puntuetan aipatu kasuetan izan ezik.

Hirugarren Kapitulu

Euskararen erabilera Donostiako udalerrian bultzatu eta normalizatzeaz.

22. artikulua

Herritarren ezagupena eta erabilpenaren sustapena

Hiru dira euskararen erabilera Donostiako udalerrian normalizatzeari dagokionez Udalak beregain hartzen dituen helburu nagusiak: euskaraz dakiten herritarren kopurua pixkanaka-pixkanaka gehitzea, gaurko euskararen erabilpena ziurtatzea eta nahiz euskaraz dakitenek nahiz ikasten ari direnek erabil dezaten bultzada iraunkorra ematea.

Hori horrela delarik, euskaraz dakitenen hizkuntz ohiturak aldatzearen aldeko saioak burutuko ditu Udalak, modu iraunkorrean, nola bere ekimenez, hala bere gainetik dauden Erakundeen eta herritarren arteko bitartekotza eginez.

Era berean, eta erabilpena ziurtatu eta bultzatu eta gaurko erabilpen-esparruak handitzeko xedez, ahalegin berezia egingo du euskaraz hitz egiten dakitenak alfabetatu daitezen.

23. artikulua

1.- Toponimia

1. Donostia udalerriko kale, bide, auzo, auzune, mendi, ibai eta erreken izendegi ofiziala eta, oro har, toponimoak, Donostiako Udalak finkatuko ditu bere eskumen-esparruan; beti ere, euskal, erromantze edo gaztelani jatorria errespetatuz eta hizkuntza bakoitzaren grafia akademiko propioa erabiliz. Hori horrela delarik, Donostia udalerriko toponimoen bilketa eta jadanik bildutakoen berrikuspina egingo du Udalak, eginkizun horren ardura dagokion Erakundearen zuzendaritzapean eta Euskaltzaindiaren irizpideen arabera.

2. Trafiko-seinaleak

2. Herri bideetako trafiko seinale eta iragarpenak oro bi hizkuntza ofizialetan idatzita egongo dira. Nolanahi ere, euskarazko testua lehenetsiko da, nazioarteko arauak errespetatu eta ulergarritasuna bermatzearen kalterik gabe.

2. Piktogramak

Ulergarritasuna piktograma bidez bermatu ahal litekeen kasuetan, euskarazko testua bakarrik izango dute iragarpenek.

24. artikulua

Garraio publikoa

Donostiako garraio publikoetako inprimaki, abisu eta adierazpenak oro euskaraz eta gaztelaniaz egin daitezten eta mezuaren ulergarritasuna bermatu ahal litekeenean euskara hutsean egin dadin neurri eraginkorrak hartuko ditu Udalak. Era berean, abiapuntua Donostian ez eduki arren udalerrri honetan geralekua duten garraio publikoetako arduradunei ere gauza bera egin dezaten eskatuko zaie.

25. artikulua

1. Dirulaguntzak

Azaroaren 2leko 10/1982 oinarrizko Legearen 26. eta 27. artikuluetan xedatuaren arabera, euskara gizarte-esparru guztietan eta publizitatean erabili dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin neurri egokiak hartzea dagokie botere publikoei. Hortaz, Donostiako Udalak. aipatu xedearen harian eta bere jarduketa eremuan. honako neurriok hartu eta betearaziko ditu:

1. Kultur, kirol eta aisi elkarteei subentzioak ematerakoan hizkuntzaren irizpidea ere kontutan hartuko da. Ondorioz, Donostiako Udalarengandik dirulaguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, beren jardun subentzionatuetan argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte, propaganda ere, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dutelarik. Era berean, ospakizun konkretuetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dituzte.

Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta betez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehentasuna, euskarazko adierazpenez jabetu litezkeenak elebidunak baitira.

Subentzioak eskuratzeko baldintzetariko bat izango da guzti hori, subentzio hartzaileek, subentzioa jasoko badute, derrigorrez bete beharko dutelarik.

2. Udal-instalazioen eta materialen erabilpena

2. Udal instalazioak eta materialak erabili ahal izateko ere aurreko puntuan aipatutako baldintza bete beharko dira. Udalak, beraz, frontoia, hesiak, oholtzak eta zernahi udal instalazio eta material erabiltzeko baimena ematerakoan, hizkuntza baldintza horren berri emango die interesatuei, eta fidantza itzuli baino lehen egin ohi diren egiaztapenatariko bat izango da hizkuntzari buruzkoa ere.

3. Kioskoak, barrakak eta abar.

3. Ferietako, zirkoetako, kioskoetako zein lurzoru publikoan jartzen den edozein instalaziotako idazki, iragarki eta kartelak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango dira ezagutzera, eta beraz, instalatzeko baimena emateko baldintzen artean hori ere azalduko da, eta horrela jakinaraziko zaie jabeei, fidantza itzuli aurretik baldintza hori bete den ala ez egiaztatu beharko delarik.

4. Haborokinak publizitate-zergan.

4. Publizitate-Zerga arautzen duen Ordenantza, edo honen ordeztariko den Prezio Publikoarena, kuotan haborokinak xedatuko ditu euskara hutsean idatzitako errotuluetan

5. Haborokinak publizitate-zergan.

5. Artikulu honetan xedatua betetzeko, Udalak, Euskararen Patronatuaren bidez, Hiriko bizitza sozial eta kulturalaren alor guztietan euskararen erabilpena sustatzeko kanpainak egingo ditu, bereziki merkataritzako, dendaritzako, lanbideetako, kulturako, kiroltako eta antzeko erakundeengana zuzenduz.

26. artikulua

Irakaskuntza ez unibertsitarioa

Donostian ematen den irakaskuntza ez unibertsitarioan, Uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuan xedatutako hizkuntz ereduetao eredurik euskaldunenak gero eta gehiago heda daitezen saio bereziak egingo ditu Udalak, batez ere matrikulazio epeak irekitzean, eta B edo D ereduak aukeratu dituzten haurrak, antolamendu arrazoiak direla medio eredu horietan eskolatu gabe gera ez daitezen. Era berean, eskola mundua eta eskolaumeen arteko giroa euskalduntzeko jarduera osagarriak ere bultzatuko ditu Udalak

Guzti hori , gurasoen eta hurren aukera erabat errespetatuz eta ikastetxeekin elkarlanean burutuko da.

27. artikulua

Udal haurtzaindegia

Ama hizkuntza euskara ez baizik gaztelania edo beste edozein hizkuntza duten hurrek euskara nekerik gabe ikasi ahal izan dezaten bizitzako lehen urteak oso garrantzitsuak direla kontutan hartuz, Udala haur jaio berriak dituzten gurasoei sistematikoki zuzenduko zaie Udal Haurtzaindegi zerbitzuaren berri emanez eta zerbitzu horrek, euskara ikasteari dagokionean, beren haurrentzat dituen alderdi onak jakinaraziz.

28. artikulua

Helduen euskalduntze-alfabetatzea

Hizkuntza-normalizazioaren esparruan Udal honen xede nagusietarikoa Donostian euskaraz hitz egiten dakitenen kopurua gehitzea eta hitz egiteko gai direnak alfabetatzea denez, eta kontutan hartuz, alde batetik, Donostiako biztanleriaren portzentaia handi batek ez dakiela euskaraz eta bestetik, eskoletatik ere ez direla denak euskara behar bezala menderaturik irteten eta, halaber kontutan hartuz erantzukizun publikoa dela euskalduntzearena, helduen euskalduntze eta alfabetatzerako eskaintza publikoa indartuko du Udal honek.

29. artikulua

Gizarte-bizitzaren euskalduntzea

Udalerriko gizarte-bizitza euskalduntzearen, Udalak hainbat sektore euskalduntzeko prozesuak bultzatuko ditu, eta haur, gazte eta helduentzako kultur eta aisiarako ekintzak antolatuko ditu, hirian dauden euskaltegiekin lankidetzan jardunez.

Xedapen Gehigarriak

Jarraipenerako Batzorde Berezia

Lehenengoa.

Hizkuntz normalizazioaren bilakabidearen segizioa egiteko Batzorde Berezia eratuko da non, Udaleko ordezkari politikoez gain, langileen ordezkariak ere esku hartuko baitute, langileriaren euskalduntzeari eta hizkuntz eskakizunen aplikazioari buruzko gaietan.

Batzordearen betebeharrak

Bigarrena.

Batzorde horri dagokio Arauteria hau betetzera zuzendutako proposamenak prestatzea, eta baita arauteriaren garapenaren segizio-, kontrol- eta ebaluaketa-lanak.

Aldiro, ezarritako helburuen betetze-maila ebaluatuko du, eta halaber euskalduntze-prozesuaren edozein fasetan sumatutako atzerapen edo zailtasunak konpontzeko neurri egokiak aztertuko ditu.

Batzordeak horretarako HABEk Udalari hilero bidaltzen dizkion ebaluaketak aztertuko ditu, HABErekin 1990eko martxoaren 26an egindako hitzarmenean xedatutakoarekin bat.

Emaitzen neurketa

Hirugarrena.

Arauteria hau indarrean sartu eta handik bost urteetara. Batzorde honek neurtu egingo ditu hizkuntz normalizazio prozesuan lortutako emaitzak, eta horrela badagokio, Udalari Arauteria berrikusteko proposatuko dio.

Laugarrena.

Langileen ordezkarietara entzun egingo zaio euskalduntze-planak eta euskarako ikastaroetara joateko egutegiak egin baino lehen.

Xedapen Desemailea.

Derogaturik geratzen dira, Ordenantza honen maila bereko edo azpikoak izanik bertan xedatutakoa aurkatzen duten xedapen guztiak.

Donostia, 1991ko maiatzaren 9a.